


Apaizetxea eraikinarekin batera, honi lotutako lursailak ere errentan hartuak ditu Itziarko Auzo Udalak iaztik. Lehendik zenbait herritarrek baratza zatiak ustiatu izan dituzte bertan. Lursailak izaera publikoa bereganatu duenez, 600 bat metro koadroko baratza eremua egokitu da bertan, egungo baldintzen arabera antolatu eta bizilagunei zabalduz, jarduera berriari ekiteko.

Herri baratza egitasmoak honako helburuak ditu:

1. Biztanleei aisialdirako eta jarduerarako espazio bat eskaintzea.
2. Inguruan erabiltzen edo aprobeztatzen ez diren eremuak erabilera publikoetarako berreskuratzea.
3. Herritarren partaidetza eta garapen iraunkorra sustatzea, biodibertsitate espazioak sortuz.
4. Iraunkortasuneko politikak antolatzea eta, horretarako, giza garapena eta ingurumena uztartzea, giltzarri gisa.
5. Erakunde eta herritarrak biodibertsitatearen zaintzan inplikatzeko.
6. Laborantzan ingurumen jardunbide egokiak sustatzea. Hondakinak kudeatzea, ura aurrezteko, nekazaritza tradizionaleko ohiturak berreskuratzea, e.a.
7. Baratzak heziketarako eta jolaserako duen balioa indartzea.
8. Ingurune naturalaren eta giza jardueren arteko loturak ezartzea eta kontuan izatea.
9. Elikadura osasungarria eta osasunerako hobeak diren ohiturak sustatzea.
10. Ingurumenaren ezagutza eta errespetua sustatzea.
11. Belaunaldien arteko harremanak eta hartu emanak sustatzea, ikastetxeekin jarduerak antolatuz...
12. Gizarte taldeen arteko elkarbizitza eta harremanak sustatzea eta kolektibo kaltetuenei laguntzea.

Aisiarako baratzak behar bezela funtzionatzeko ezinbestekoak diren zerbitzu orokorrak eta premiak xedatu ditu auzo udalak, kontratatutako alorreko enpresa baten gidaritzapean. Behin lursaila birmoldatuta, hamar baratza eratu dira bertan, oinarritzko hornikuntzez gain.



## BALDINTZAK

Deialdi honen bidez, hamar baratza erabiltzeko aukera eskeini nahi du Itziarko Auzo Udalak. Baratza publiko hauetan erabiltzaileek instalazio partekatutako izango dituzte eskura, hala nola, lanabesen biltegia, ureztatzeko ur-puntua, konpost gunea eta mahai gune bat (aisialdi erabilerarako).

Bete beharreko baldintzak:

1. 18 urte beteta izatea eta Itziarko Auzo Udalaren barrutian erroldatuta egotea.
2. Udalarekiko zerga-betebeharrak eta bestelakoak ordainduta izatea.
3. Beste baratza baten erabiltzaile den bizikidetzaren unitate kide ez izatea.

Baimenaren iraupena urtebetekoa izango da eta hiru urtera arte luzatu ahal izango da, luzapenak automatikoki egingo direlarik. Titularitatea ezingo da eskualdatu eta titularra hilez gero, oinordekoak ez du inongo eskubiderik izango.

Partzela baino interesdun gehiago agertuko balira, zozketa bidez erabakiko litzateke, eta bigarren zozketa bat egingo da lurjabe bakoitzari zein lursail dagokion ezartzeko.

Deialdiaren ondoren baratzaren bat hutsik geratuko balitz, arduradunek erabakiko dute zein irtenbide eman, adibidez, interesatu berriei aukera eskainiz.

Izendatutako herritarrentzat doakoa izango da baratzaren erabilera eta ustiaketa. Ordainetan, baratzagintzari lotuta antolatu daitezkeen gizarte ekintzetan laguntzea eskatuko zaie, hala nola, eskolako baratzeei kudeaketan inplikatzuz, ikasleei aholkuak emanez, edota ikastaro, erakusketa eta antzeko zabalkundean parte hartuz.

## IZENEMATEA

Epea 2023ko **urtarrilaren 16tik 30era** bitartekoa izango da. Itziarko harrera bulegoan erregistratu beharko da eta NAN ziurtagiriaren kopia entregatu behar da.

Baratza publikoen esleipenean interesa duten pertsonak esandako epean eskabide bat aurkeztu eta egiaztapenak egin ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da. Hamar egun natural izango dituzte erreklamazioak jartzeko. Zozketak auzo udal ordezkarien aurrean egingo dira eta ondoren esleituak, halakorik balitz, itxaron zerrendak argitaratuko dira iragarki taulan.

**Itziarko Harrera Bulegoa**  
Mutxiarte Kalea, 8  
20829 Itziar, Gipuzkoa

Orduetgia:  
10:00–15:00 (lan egunetan)  
☎ 943 19 92 55  
✉ info@itziar.eus



# HERRI BARATZAK ITZIARRREN

10 baratza sail aukeran,  
herritarren erabilerarako

